



## PAÍS VASCO Y NAVARRA

### Beñat Berasategui – San Fermín Ikastola

#### ARGIA, ALTXOR BAT

Iratzargailuak jo du. Begiak ireki ditut. Sukaldera jaitsi eta nire eguneroko gosaria prestatu dut: Ogi xigortua eta katilu bat kafesne. Gaurkoa egun berezi bat da. Aurten argiaren urtea da eta gaur hasten dira argia aprobetxatzeko proiektuaren lehen pausoak. Gosaria bukatu eta lantokira abiatu naiz.

Nik agindu bezala ari dira eguzki-plakak nonahi instalatzen. Azkenean lortzen ari dugu argia benetan erabil ahal izatea. Orain arte, energia mota hau medikuntzan erabili dugu gehienbat baina bihar martxan jarriko dugun makinari esker, argi-indarra potentzia handiagorekin eta gehiago jasoko dugu. Denak pozik gaude, asmakizun honi esker nahi aina diru lortuko dugulako.

\* \* \*

Eguna bukatzen ari da eta etxera bueltatu behar naiz, deskantsatzera, bihar oso adi egon behar bainaiz. Kaleko langileek ere haren eginbeharrak bukatu dituzte eta poliki-poliki, etxeratzen ari dira. Nire egoitzara iritsi bezain laster, ohean etzan eta lo seko gelditu naiz.

\* \* \*

Gaur ez dut iratzargailuaren laguntzarik behar izan esnatzeko. Oso mugiturik altzatu naiz., emozionaturik. Gosaldu ondoren ez naiz lantokira joan, tramankulua espazioratuko dugun lekura baizik. Nik asmatu nuen makina paregabe hori, duela urte pare bat edo. Nire alabatxoa lehio-ondoan zegoen bere erloju berriarekin eta ni telebista ikusten. Erlojuarekin eguzki izpiak islatu zitzaizkeela ikasi eta ni zirikatzen egon zen, argia nire aurpegian eta begietan islatzen.

Azkenean berarekin haserretu nintzen, baina nire argi konpainia (mementu hortan ixtekotan geunden arazo ekonomikoengatik) salbatzeko ideia eman zidan eta hortan datza gaur espaziora bidali behar dugun aparatuaren mekanismoa: ispilu erraldoi eta magnetiko baten antzeko gauza bat da, eguzki izpiak lur planetan islatu eta kontzentratzen dituena. Energia hori egun hauetan instalatutako eguzki plaketan josoko dugu.

Espazioratze plantan nire asmakizun ederra ikustean oso harro sentitu naiz. Minutu batzuk pasa eta azken inspeksioak egin eta gero, hiru sugar erraldoi atera dira ispiluaren azpikaldetik eta igotzen hasi da. Hor ikusi dut, nigandik urruntzen eta sekulako talentua dudala pentsatu dut. Leher eginda nago baina pozik eta etxera bueltatu naiz.

\* \* \*

Iratzargailuak ez du jo, itzalita dago. Zorionez lehioa ireki ahal izan dut, argia sartzeko. Baina ez da nik uste aina argi sartu. Gosaria ere kaxkarra izan da, ezin izan baitut ogia xigortu ez kafesnea berotu. Bai arraroa.

Zorionez, kotxea ondo doa eta nire lantoki maiterantz gidatu ahal izan dut. Lehen aldiz ikusi dut ordua, eta eguerdia izateko eguzkiak oso argi gutxi ematen du.

Lankide batzuekin hitz egin dut eta esan didatenez, nire kasuan bezala energi elektrikorik gabe gelditu dira. Nire nagusiarengana joan naiz proiektua zer moduz doan ikisteko. Lehendabizi zoriondu egin nau eta gero asko pentsarazi nauen esaldi bat bota du: “argia altxor bat da, ez duzu uste?”

Konturatu naiz gazki egun dudala makina hori sortzen. Gaizki egin dudala proiektu hori abiarazten. Gure gizartean, edozein altxor segituan xahutzen eta txikutzen dugu, petroleoa adibidez.

Orain konturatu naiz gertatzen ari denaz. Nire traste madarikatuak magnetismoa dauka eta eguzkira hurbiltzean, haren izpiak gugana hurbildu ordez, eguzki barnera birbidaltzen ari da. Horrek horrela jarraitzen badu, eguzkiak ez du askoz gehiago iraungo ez guri argi gehiago bidaliko. Hori gutxi balitz, magnetismo puñeteroak lur planetako inguru magnetikoa eraldatu eta zirkuito elektriko guztiak hondatu ditu. Horrexegatik ez zihoan nire iratzargailua. Hau gelditu behar da, beranduegi izan aurretik. Arratsalde hontan beranduegi izango da.

Gauza batez jabetu naiz, kotxean ordua ikusi dut, eta erloju hori elektrikoa da, apurtuta zegoen. Honezkero arratsaldea izango da.

Bat-batean, dena ilundu da. Ez dago argirik. Ez dago elektrizitaterik. Ez dago eguzkirik: Beranduegi da.

## RELATO EN CASTELLANO

### LA LUZ, UN TESORO

El despertador ha sonado. He abierto los ojos. He bajado a la cocina y he preparado mi desayuno diario: Pan tostado y una taza de café con leche. Hoy es un día especial, ya que este es el año de la luz y los primeros pasos para aprovechar mejor esa energía comienzan hoy. He acabado el desayuno y me dirijo al trabajo.

Están colocando paneles solares por todos los lugares, como yo ordené. Al fin lograremos utilizar la luz de forma realmente efectiva. Hasta ahora, hemos utilizado esta clase de energía principalmente en unos pocos aparatos relacionados con la medicina. Gracias a la máquina que mañana pondremos en marcha, conseguiremos energía solar con mayor potencia y en mayor cantidad; de esta forma, la podremos utilizar para muchas otras cosas. Todos estamos felices, ya que gracias a este invento, lograremos tanto dinero como deseemos.

\* \* \*

El día está finalizando y tengo que regresar a casa, a descansar, debido a que mañana deberé estar muy atento. Los trabajadores de la calle también están terminando sus labores y poco a poco, volviendo a sus hogares. Tan pronto como he llegado a mi casita, me he tumbado en mi cama y me he dormido rápidamente.

\* \* \*

Hoy no he necesitado la ayuda del despertador para despertarme. Me he levantado muy movido, emocionado. Al acabar el desayuno no he ido al taller, sino que al sitio donde enviaremos al espacio esa máquina. Yo creé ese inigualable aparato, hace un año más o menos. Mi hija estaba junto a la ventana, con su reloj y yo viendo la tele. Descubrió que podía reflejar los rayos del sol usando el reloj, y estuvo incordiándome durante un rato, reflejando la luz en mi cara y en mis ojos.

Acabé enfadándome con ella y castigándola, pero me dio una genial idea para salvar mi compañía eléctrica (que en ese momento estaba a punto de cerrar por asuntos económicos). Y es eso en lo que se basa el aparato que haremos despegar: es algo parecida a un espejo gigante y magnético, que refleja y concentra la luz del sol en la tierra. Esa luz será recogida por las placas solares instaladas estos días. Gracias a eso, conseguiremos el triple de la cantidad de luz que normalmente llega a nuestro planeta.

Al ver mi invención en la planta de lanzamiento me he sentido muy orgulloso. Después de unos minutos y de haber hecho unas últimas inspecciones, han salido tres enormes llamas de la base del espejo y ha empezado a ascender. Viéndolo alejándose de mí, no he hecho nada más que pensar que soy magnífico. Agotado aunque realmente contento, he vuelto a casa.

\* \* \*

Mi despertador no ha sonado, está apagado. Por suerte he podido abrir la ventana, para que la luz entre. Sin embargo, no ha entrado tanta luz como esperaba. El desayuno ha sido bastante triste, puesto que no he podido tostar el pan ni calentar el café. Que extraño.

Por suerte mi coche si funciona y he podido conducir hasta mi trabajo. He visto la hora por primera vez en el reloj del coche, y me parece que hay muy poca luz para ser mediodía.

He hablado con unos compañeros y por lo que me han dicho, se han quedado, como yo, sin energía eléctrica en sus casas. Dejando a un lado ese tema, me he dirigido a la oficina del director, para ver el estado del proyecto. Al entrar me ha felicitado y luego ha dicho una frase que me ha obligado a reflexionar: "la luz es un tesoro, ¿no te parece?"

Entonces me he percatado de que hice muy mal al crear esa máquina. De que hice mal al poner en marcha ese proyecto. Desgraciadamente, en nuestra sociedad, destruimos y agotamos cualquier tesoro, como el petróleo o las montañas, por ejemplo.

Ahora me doy cuenta de lo que está pasando. Ese horripilante trasto está teniendo el efecto contrario al que queríamos y al aproximarse al sol, en vez de dirigir la luz a la tierra la está reenviando a la misma estrella. Si eso sigue así, el sol no aguantará mucho más. Por si eso fuera poco, el magnetismo ha transformado el campo magnético de la tierra y destrozado todos los circuitos eléctricos que hay en ella. Por eso no funcionaba mi despertador. Esto hay que pararlo, antes de que sea demasiado tarde. Calculo que hoy al atardecer será demasiado tarde.

Pero me vuelvo a percatar de un importantísimo detalle: Sé qué hora es, porque la he visto en el coche y ese reloj es eléctrico, por lo que estaría estropeado. Ahora debe de estar atardeciendo.

De repente, todo se ha oscurecido. No hay luz. No hay electricidad. No hay sol.

Es demasiado tarde.